

Herria eraiki

ELAren Nazio Batzordearen adierazpena

Baionan, 2023ko otsailaren 22an

Gaur Baionan bildu den ELAren Nazio Batzordeak Iparraldeko egungo egoera izan du aztergai. Bilkuran azken 60 urtetan abertzaletasunak Ipar Euskal Herrian eginiko ibilbidea errebasatu eta baloratu du. Azken hamarkadan emandako pausoak, sorturiko tresnak eta izandako lorpenak aintzat hartu ditu eta Iparraldeko abertzaleek eginiko hainbat apustu estrategiko balioetsi.

Estrategia irabazleak

2013ko urtarrilaren 14an, Baionan bildu zen ELAren Nazio Batzordeak salatu zuen garai hartan Lehen Ministro zen Manuel Vallsek uko egin izana Iparralderako administrazio-egiturari buruzko eztabaida irekitzeari. 10 urte ondoren, Iparraldeko jendarteak abian jarritako estrategia irabazle eta mobilizazio iraunkorrek blokeoa gainditzea lortu zuten, eta Iparraldeko gure hiru lurraldeak batzen zituen lehen erakundea sortu zuten: Euskal Hirigune Elkargoa.

Lehen erakunde honen sorrera Batera borrokaren eta Frantziako Gobernua debekatzen saiatu zen Euskal Herriko Laborantza Ganbararen alde egin zen borroka eredu garriaren ondorio da. EHLGk borroka politiko eta judizial guztiak irabazi ditu, eta ordutik nabarmen sendotu eta indartu da.

Ikuspegi berriak

EHLGren adibideak, Manu Robles-Arangiz Fundazioaren trebakuntza-lanak, Biziren jaiotzak eta jarduerak, 2013ko urriko Alternatibaren antolaketak, beste inspirazio-iturri batzuekin batera, Euskal Herri burujabe eta jendarte justuago eta iraunkorrago baten aldeko borrokari ikuspegi berria eman die: helburu horiek egikaritzen dituzten eta gure egunereko bizitzari eragiten dioten dimentsio ezberdinetan alternatibak eraikitzea.

Azken hamarkada horretan sortu dira Euskoa -egun Europako tokiko moneta osagarri hedatuena-, Lurzaindia, I-Ener, Enargia eta Euskal Herri bujabe, solidario eta iraunkorra altxatzen duten beste hainbat harri. Era berean, Iparraldeko jendarte eta lurraldea babesteko, suntsitzaileak eta inposatuak izan diren alferrikako hainbat proiektu bertan behera uztea lortu duten bortizkeriarik gabeko herri-mobilizazioen hamarkada ere izan da: AHTaren ibilbide berria, Larrun mendiko lanak, urre meategien proiektua...

Gizarte zibilaren mobilizazioak ere zeregin erabakigarria izan du 2011ko Aieteko adierazpenaren ondoren bi Estatuen ekimen ezak sorturiko geldialdia gainditu eta agertoki berri bati bide ematean. 2016ko Luhusoko operazioak, 2017ko apirilaren 8ko ETAren armagabetzeak eta ondorengo desegiteak, euskal presoaren aldeko mobilizazioek -Parisen manifestazioa egiteraino edo Iparraldea gelditzera iristeraino-, euskal gizartearen gehiengoak helburu dituen bake eta justizia nahiak arriskuan jartzen zituzten egoera eta jarrera asko desblokeatu eta aldatzea lortu zuten. Luhusotik hasi eta 2022ko uztailaren 19ko ekintzetara bitarteko herritarren intereseko ekintzetan parte hartzeagatik auzibidean dauden -Nazio Batzorde honetako kide den Txetx Etcheverry kasu- edo zigortuak izan diren Iparraldeko Bakearen Artisaueri erabateko elkartasuna adierazten die ELAk.

Azkenik, ELA asko poztzen da herritar xumeez osaturiko auzo eta giroetan lan egiten duen mugimendu bat sortzearen alde duela bi urte egindako apustu estrategiko berriak izan duen arrakastarekin. Gaur egun, Alda, laguntza eta babesa eskatzen duten ehunka familia eta pertsonen bidelagun bihurtu da. Hazten ari den familia eta pertsona kopuru horrek erakusten du mugimendu berri honen gero eta onarpen handiagoa; baina baita, zoritxarrez, Iparralden gero eta gehiago hazten ari den herritar prekarioen kopurua ere. Ongizate-estatuaren eta gizarte-lorpenen eraispenak, neoliberalismoak sortzen dituen kalteak, gero eta desberdintasun handiagoak eragiten dituzten politikek eta etxebizitzaren eta energiaren krisiak gero eta biktima gehiago eragiten dituzte.

Elkarte berriak bereziki garrantzitsuak diren hainbat garaipen lortu ditu, hala nola Euskal Hirigune Elkargoak ohiko bizilekuak behin-betiko Airbnb egoitza bihurtzea ekiditen duen konpentsazio neurria onartzea edo iruzurrezko kontratuen aurkako batzordea sortu izana. Aldak eginiko lana aitortua eta saritua izan da alokairuko etxebizitza publikoko HLM hauteskundeetan. Etxebizitza hauetako maizterren ordezkarien erabateko gehiengoa lortu du.

Herria eraiki...

Hamarkada honetan, mugimendu abertzaleak aurrerapen nabaria izan du hauteskunde politikoetan, esaterako, udalerrri garrantzitsu batzuetako alkatetzak lortu ditu eta 2021eko departamentuko hauteskundeetan EHBai 12 kantoetatik 7tan pasa zen bigarren itzulira.

Adierazle esanguratsu horretatik haratago, deigarria eta pozgarria da gero eta gehiago ugaltzen ari diren eta 320.000 biztanleko lurralde batean milaka pertsona biltzen dituzten eta kultura hegemonian tartea irabazten ari diren mota guztietako ekimen edo adierazpenak ikustea: euskararen alde, herrian bizi eta etxebizitza eskubidea bermatzearen alde, erretiro adina atzeratzearen aurka, bidezko bake eta bake globalaren alde; nekazaritza-lurren eta tokiko eta bidezko nekazaritza-eredu iraunkorraren alde, AHT ibilbide berriaren aurka, genero ekitatearen aldeko borroka eta mobilizazio feministak, migratzaileei harrera egitearen aldeko mobilizazioak, lurraldearen metamorfosi ekologiko eta sozialaren aldeko ekimenak... Masa dinamika horiek «eraikitzen dute herria», are gehiago Hego Euskal Herrian ere adierazitako eskaera eta kezekin geroz eta gehiago bat egin eta elkarrekin azaltzen diren heinean.

...eta aitorpen ofizial eta kontsolidazio instituzionaletik harago joatea

Hala ere, egunero eraikitzen den herri hau ez da orainaren eta etorkizunaren gako guztien jabe.

Euskal Hirigune Elkargoa ez da Iparraldeko herritar gehienek eskatu zuten estatutu bereziko lurralde kolektibitatea. Beraz, aldarrikapen instituzionalak bere horretan darrai. Estatutu bereziko lurralde kolektibitatearen aldeko borrokarekin batera, egungo Hirigune Elkargoa ere egokitu behar da. Iparraldekoa moduko «XXL» aglomerazioek, konpondu beharreko zenbait zailtasunekin topo egiten dute, eta kasu bakoitzean tokiko errealitateen arabera irtenbide desberdinak aurkitzen saiatu behar da. Era berean, Hiriguneko hautetsiak sufragio unibertsal bidez hautatzeko sistema ezarri behar da.

Halaber, beharrezkoa da Ipar Euskal Herriari bere errealitatera eta administrazio egitura berrira egokitzen diren tresna instituzionalak ematea. Horien artean dago, ezbairik gabe, Ipar Euskal Herriko Nekazaritza eta Elikadura Bulego Publikoa, Iparraldeko nekazaritza eta elikadura gaiei buruzko kontsulta eta ordezkaritza organoa litzatekeena. Ipar Euskal Herriko nekazaritza eta elikadura proiektua definituko luke, ekintza zehatzak bultzatu eta finantza beharrak eta bitartekoak bideratu.

Bere berezkoa dugun gai nagusi moduan, hizkuntza-politikan beharrezkoak diren saiakerak egiteko aukera izan behar dugu. Frantsesaren uniformetasun eta ezarpenak ezin du euskara menpean hartu. Bai hezkuntza ibilbidean zehar, azterketetan, hedabideetan, aisialdian edo egitura publikoen erabileran, Euskal Herriko biztanleek euskara gehiago nahi dutela frogatu dute. Bada garaia oztopoak gainditzeko eta hizkuntzaren etorkizuna ez dadin oinarritu boluntarioen elkarteetan eta militanteetan, egokituriko, anbizio handiko eta baliabidez hornituriko hizkuntza politika batean baizik.

Euskal Herriaren ahotsa entzuna eta errespetatua izan behar da: onartezina da hasieratik Iparraldeko hautetsien gehiengoa AHTren ibilbide berriaren aurka egonda, Ipar Euskal Herrikan kanpoko hiru erakundeak (departamentua, eskualdea eta Estatu) hura inposatu nahian ibiltzea eta herritarrek hura finantzatzeko tasa berri bat ordaintzera behartu nahi izatea.

Era berean, ez da onargarria soilik Ipar Euskal Herria jarduera eremu moduan izateagatik, Alda Habitategi Office 64ko zenbait erabakigune estrategikotatik kanpo utzi nahi izatea. Are gutxiago Aldaren zerrendek etxebizitza sozialeko eremu honetako maizterren bozken gehiengoa jaso duenean.

Euskal Herria burujabe

Beraz, herri honek nahi duen etorkizuna aukeratu eta eraikitzeke eskubidearen aldeko borroka inoiz baino indartsuago darrai. Pentsioen erreforma-proiektuaren aurkako mobilizazio masibo eta pluralak, borondate argia erakusten du etorkizun hori elkartasunean, aberastasunaren banaketan eta planetaren mugekiko errespetuan oinarrituta eraikitzeke.

Apirilaren 8an eta 9an Itsasun Aberri Egun berezia ospatuko da, Iparraldean antolatutako lehen Aberri Egunaren 60. urteurrena dela eta. ELAk uste du 1963tik Iparraldeko mugimendu abertzaleak egindako bide propioak oinarri sendoak eta ondo bideratuak ezartzea ahalbidetu duela: gaur egungo herritarrei Euskal Herri burujabe, solidario eta iraunkorra begien aurrean gero eta argiago jartzen diena.